

Azaroaren 7an  
**URTEAN ZEHARREKO 32. IGANDEA**

**Agurra**

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Aitortzen dugun fedea, ahultasun eta guzti, leialtasunez bizitzen laguntzen digu Eukaristiak. Jainkoaren eskuetan jarririk, bihotz eskuzabala izatearen dohaina berari eskatuz. Jainkoak ez dio itxurari begiratzen, bihotzari baizik.

Gaur, Elizbarrutiaren eguna dugu. Gure eliz batasunaren alde otoitz egin, gure ahalegin eta jardun guztientzat argitasuna eskatu eta Elizbarrutiaren beharretarako diru-bilketa egiteko.

**Damu-otoitza**

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitzen.

- Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

**Otoitza**

**Jainko ahalguztidun errukitsua,**

**urrundu gugandik eragozpen guztiak,  
gorputzez eta arimaz geure buruaren jabe izanik  
askatasun osoz zure nahia bete dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.  
  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### **Hitzaren liturgiari oharpena**

Jainkoaren Hitza entzutea eta barneratzea beharrezkoa dugu gure bizitzarako. Bakarrik egin dezakegun ekintza eder honek, kolore berezia hartzen du elkarrekin egitean. Jainko beraren jarraitzaile eta entzule baikara guztiok. Entzun ditzagun bere irakaspen ederrak.

### **Lehenengo irakurgaia** (1 Erg 17, 10-16)

Erregeak lehenengo liburutik

Egun haietan, jaiki zen Elias profeta eta Sareptara joan zen. Hiriko ateetara iritsi zenean, emakume alargun bat ikusi zuen zotzak biltzen. Eliasek deitu eta esan zion: «Ekardazu ontzian ur-pixka bat edateko». Bila zihoala, Eliasek atzetik oihu egin eta esan zion: «Ekardazu, arren, ogi-zati bat ere».

Emakumeak erantzun zion: «Ala Jauna, zure Jainkoa! Ez dut batere ogirik; eskutada bat irin besterik ez dut katiluan, eta olio-pixka bat pitxerrean; zotzak biltzen ari nintzen, neure semearentzat eta biontzat opil bat egin, jan eta gero hil gaitezen».

Eliasek esan zion: «Ez beldur izan. Zoaz eta egin esan duzuna; baina egidazu lehenbizi niri sutopiltxo bat eta ekardazu. Gero, egingo duzu semearentzat eta zeuretzat. Hau baitio Jaunak, Israelen

Jainkoak: “Irin-katilua ez da ahituko, ezta oliontzia agortuko ere, Jaunak lurrera euria bidaliko duen eguna arte”».

Joan zen, bada, emakumea eta egin zuen Eliasek esana, eta luzaroan jan zuten Eliasek eta ama-seeek. Irin-katilua ez zen ahitu, ezta oliontzia agortu ere, Jaunak Eliasen ahoz esana zuen bezala.

### Erantzun-salmoa (Sal 146 [145], 6c-7. 8-9a. 9b-10)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -  
ak biz - ten di - tu.

- ∞. Betiko eusten dio Jaunak bere leialtasunari.  
Zapalduen eskubideak defendatzen ditu,  
gose direnei ogia ematen.  
Jaunak askatzen ditu presoak. ℞.
- ∞. Jaunak zabaltzen ditu itsuen begiak,  
Jaunak altxatzen konkortuak,  
Jaunak maitatzen zintzoak,  
Jaunak ditu etorkinak zaintzen. ℞.
- ∞. Umezurtzei eta alargunei zutik die eusten,  
baina gaiztoen nagusigoa iraultzen.  
Jauna errege da betieran,  
zure Jainkoa, Sion, errege menderen mendetan! ℞.

**Bigarren irakurgaia** (*Heb 9, 24-28*)

Hebrearrei egindako gutunetik

Kristo ez zen sartu giza eskuz egindako santutegian –egiazkoaren irudi besterik ez zen santutegian–, zeruan bertan baizik, orain Jainkoaren aurrean gure alde agertzeko; eta ez zen sartu bere burua behin eta berriz opari eskaintzeko, apaiz nagusia berea ez duen odolarekin santutegian urtero sartu ohi den bezala; bestela, hil ere askotan hil behar izango zuen, munduaren hasieratik. Baina ez, Kristo behin bakarrik agertu da orain, azkenak diren garai hauetan, bere buruaren opariak bekatua ezerezteko.

Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakia dagoen bezala, halaxe Kristo ere: behin bakarrik izan zen opari eskainia guztien bekatuak kentzeko, eta gero bigarrenez agertuko da, bekatuarekin zerikusirik gabe, beraren zain daudenak salbatzera.

**Aleluia** (*Mt 5, 3*)

∇. Zorionekoak gogoz behartsu direnak,  
berena baitute Jainkoaren erreinua. ∇.

**Ebanjelioa** (*Mk 12, 38-44 edota laburrago Mk 12, 41-44*)

## Homiliarako argibideak

### *Kontrastea*

Erabatekoa da pasadizo bien arteko kontrastea. Tenpluko lege-maisuei buruz buru, kontuz ibiltzeko esan dio Jesusek jendeari. Sasikoa da horien erlijioa: beren osperako baliatzen dute eta jenderik ahulena ustiatzeko. Ez dira horiek miretsi beharrekoak, ez zaio jarraitu behar horien ikasbideari. Bigarren pasadizoan, berriz, emakume alargun pobreak keinuari begira dago Jesus eta ikasleei dei egin die. Emakume honengandik ikas dezakete, bai, lege-maisuek sekula irakatsiko ez dieten zerbait: Jainkoarekiko guztizko fedea eta mugarik gabeko eskuzabaltasuna.

Zorrotza da lege-maisuen kontrako Jesusen kritika. Herria Jainkoagana bideratu ordez, beren osparen bila dabilta, jendearen atentzioa deitu nahi dute beren izen handiaren bila. Gustukoa dute «*harro jantzirik ibiltzea*», jendearen agurraren eta begirunearen bila. Sinagogako liturgian eta jai-otorduetan «*ohorezko jarlekua*» eta «*lehen eserlekua*» nahi izaten dute.

Bada, ordea, Jesusi min handiagoa ematen diona: aintzat eta begirunez hartuak nahi izateak eta agurtuak izateko ume-jarrera zoro horrek baino min handiagoa, alegia. Jainkozaletasun sakonaren itxurak egiten dituzte jendaurreko «*otoitzaldi luzeez*», baina beren izen erlijioso horretaz baliatzen dira emakume alargunen eta, Bibliaren arabera, izaki ahulenak eta babesgabeenak direnen bizkar bizitzeko.

Hain juxtu, emakume alargun horietako batek jarriko du agerian gidari erlijioso horien erlijio ustela. Alargun honen keinua oharkabea izan da guztientzat, baina ez Jesusentzat. Emakume gajoak bi txanpon bakarrik bota ditu eskaintzen dirutegira. Baina Jesusek berehala dei egin die ikasleei, zeren nekez ikusiko baitute tenpluko

ingurumenean behartsuekiko bihotz erlijiosoagorik eta solidarioagorik.

Alargun hau ez dabil ohore eta izen handi bila; ezkutuan eta apal dihardu. Ez dabil inor nola ustiatuko; aitzitik, duen guztia eman du, beste batzuek behar izango dutelako. Jesusen hitzetan, beste inork baino gehiago eman du, zeren ez baitu eman sobera duenetik, baizik *«bizitzeko duen guztia eman du»*.

Ez gaitezen oker ibili. Jende xume den baina bihotz handi eta eskuzabaleko hau, baldintzarik gabe maitatzen dakien hau, da Elizan dugun altxorrik hoberena. Jende hau da mundua gizatarago egiten ari dena, Jainkoagan benetan sinesten duena, Jesusen Espiritua bizirik mantentzen duena, beste jarrera erlijioso sasiko eta interesatu batzuen aurrean. Jende honengandik ikasi behar dugu Jesusi nola jarraitu. Jende hau da Jesusen antzekoena.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Egin dezagun otoitz gizaki guztien alde, inoiz falta ez dezaten gure eskuzabaltasuna:

- Eliza barne-bakez bizi dadin beti, honela Ebanjelioaren testigu gartsu izan dadin eta Jauna erdian izateaz poztu dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunei eman diezaiela Jaunak jakinduria eta zuhertasuna, guztien ongizatearen alde jarduteko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Munduan gehien sufritzen dutenak beren ezinetatik arinduak aurki daitezen. Eska diezaiogun Jaunari.

—Guk guztiok, kristau eran jardun dezagun gure eginkizun guztietan, gure lanek fruitu onak eman ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.

Ahulei laguntza ematen diezun Jainkoa, entzun Zure maitasunean uste on duen herriaren otoitzak eta egizu inork beharrezko duena falta ez dezan, Kristoren antzera geure buruak eskain ditzagula guk guztien zerbitzura. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Eukaristiaren liturgiari oharpena**

Orain egitera goazen diru-bilketa Elizbarrutiaren beharretarako izango da.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Zure dohainez janariturik, eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,  
eta zure bihotz onari eskatzen diogu,  
sakramentu honetan eman diguzun  
Espiritu Santuaren indarrak  
iraun dezala gugan  
eta eman diezagula leialtasunean bizitzeko grazia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**